

Quique Gonzalez, Andres Suarez, Kuttune eta Julie Rouault izango dira "Kontzertuan eta irekita" edizio berriko protagonistak



Musika-hitzorduek uztailaren 17an eta 18an eta irailaren 4an eta 5an izango dira Santa Mariako Elizpean, 20:00etatik aurrera.

"Kontzertuan eta irekita" ezinbesteko proposamena da gure hiriko agendan, hiriarentzat erakarpenean kulturala izateaz gain, urtez urte biltzen den jende-kopuruak erakusten duen moduan. Gainera, Katedrala Fundazioaren apustua eta konpromisoa da, eta horren kolaboratzaile nagusia Vital Fundazioa da.

Maiatzaren erdialdean, programa aurkeztu genuen, eta, bertan, honako hauek izan ziren: Ana del Val, Arabako Foru Aldundiko Kultura diputatua; Sonia Diaz de Corcuera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Kultura eta Hezkuntza zinegotzia; Arantxa Ibañez de Opacua, Vital Fundaziooko zuzendaria; Gustavo Muñoz, Jazzargia Elkarteko arduraduna, antolaketa laguntzen duena; eta Jon Lasa, gure kudeatzailea.

KONTZERTUAK

Quique González ezinbesteko kantautorea da Espainian. Ibilbide sendoa eta koherentea eraiki du bi hamarkadatik gorako denboraldian, haren letren zintotasunak eta konposizioen dotoretasunak markatuta. Amerikako sustraiak dituen rockaren eta egile-kantaren arteko musika egunerokotasuna eta emozioak sentsibilitate paregabearekin aztertzen dituen narratibak nabarmentzen du. **Uztailaren 17an, ostirala, 20:00etan.**



Andrés Suárez egile-abesti garaikidearen figura nabarmena da, eta leku propioa bereganatzea lortu du konposizioen intentsitate emozionalari eta ñabarduraz betetako ahotsari esker. Musikariak publikoarekiko hurbiltasunetik eraiki du ibilbidea, eta letra zintzoak erabiltzen ditu maitasuna, zalantzak eta bizipen pertsonalak zuzeneko sentiberatasunaren bidez aztertzeko. **Uztailaren 19an, larunbata, 20:00etan.**



Kuttune soinu-aberastasun handiko proiektu kolektiboa izateaz gain, gaur egungo sustrai-musikaren proposamen berezietako bat da. Nerea Quincoces perkusio-jotzaile eta abeslariak zuzentzen du, eta tradizioa, ikerketa eta sorkuntza propioa uztartzen ditu. Musikak euskal eta iberiar folklorearen abiapuntu, eta Afrika Mendebaldeko, Ekialde Ertaineko eta Latinoamerikako eraginetara zabaltzen da. **Irailaren 4an, ostirala, 20:00etan.**

Julie Rouault sentiberatasun handiko abeslari eta konpositoreak fintasunak, introspekzioak eta soinu-giro zainduak markatutako proposamena garatzen du. Haren musika folk garaikidearen eta chanson-aren artekoa da, eta ahotsa eta emozioa nagusi dituzten paisaia intimoak sortzen ditu. **Irailaren 5ean, larunbata, 20:00etan.**



Lau musika-hitzorduetarako **abonuak** jada eskura daitezke 50 €-ren truke. Ekainaren 22tik aurrera, berriz, kontzertuetarako **sarrerak** ere eros daitezke. Publiko orokorrak 20 €-ren truke erosi ahal izango ditu sarrerak Quique Gonzalezen eta Andres Suarezren kontzertuetarako eta 12 €-ren truke Kuttuneren eta Julie Rouaulten musika-hitzorduetarako. Abonamenduak eta sarrerak www.kontzertuanetairekita.eus web gunean erosi daitezke.

Fundatzaileen Zirkuluko bazkideek beren sarrerak eta abonamenduak erosi ditzakete plaza-kopurua bete arte %25eko deskontuarekin. Salmenta Bisitarien Zentroan bakarrik egingo da (Santa Maria Kantoia, 3) eta 945 255135 telefonora deituta.



SANTA MARIA, RTVEKO "DE TAPAS POR ESPAÑA" PROGRAMAN

Gure hiriko gastronomia, ondarea eta lekurik enblematikoenak protagonista izan ziren La2en maiatzaren erdi aldera emandako "De tapas por España" saioan.

"Vitoria-Gasteiz, Europako hiriburu berdea" lehiaketan, katedralak paper garrantzitsua izan zuen, eta Jon Lasa gure kudeatzaileak Adrienne Chaballe aurkezleari azaldu zion tenpluaren historia, jatorritik hasi eta urteetan zehar izan dituen eraldaketetaraino. Ibilbidean zehar, "Obretan eta irekita" programari buruz ere hitz egin zuten, horrek aukera eman baitu ikusleek eraikina zaharberritzeko lanen bilakaera ikus dezaten, erreferentziatzko eredu bihurtu baita, eta Ken Follet idazlearen "Katedral bat ezagutzeko" lanaren inspirazio-iturri ere izan da. "Katedral bat ezagutzeko".

Programa esteka honetan ikus daiteke: <https://t.co/Kk7xpBx8ji>



"De tapas por España" programatik ateratako irudia, Vitoria-Gasteizi eskainia.



GAZTEKLASIKAREN KONTZERTUETAKO BAT KATEDRALEAN IZANGO DA

Musika klasikoaren inguruko esperientzia arkitektonikoa. Horrela deskriba daiteke ekainaren 11n Santa Marian egingo den kontzertua, Gazteklasika Jaialdiaren I. edizioaren barnean.

Kontzertua Luka Coetzeek (biolontxelo), Javier Comesañak (biolina) eta Jana Barenscheek (txirula) eskainiko dute, eta Johann Sebastian Bachen suiteak eta partitak interpretatuko dituzte. Gainera, Ismael Garcia arkeologoak hitzaldi bat emango du, eta, horrela, maisu alemaniarraren musika katedralako arkitekturarekin erlazionatuko du, herritarrei soinuaren, espazioaren eta ondare historikoaren arteko irakurketa gurutzatua eskaintzearren.

LUIS ARAMBURU MUSIKA ESKOLAREN IKASTURTE-AMAIERAKO KONTZERTUAK

Gure katedrallean izango dira beste behin Luis Aramburu Musika Eskolako ikasleen ikasturte-amaierako entzunaldiak. **Kontzertuak 19:00etan** hasiko dira, eta **sarrerak Musika Eskolan** bertan eskura daitezke ekainaren **8tik 12ra**.

Programa asteazkenean, ekainak 10, hasiko da Txiki band eta Jueverasic Band taldeekin, Santa Maria plazan. Ondoren, Elizpean, abesbatzak egongo dira ekainaren 15ean, astelehena; piano-entzunaldia ekainaren 17an, asteazkena; eta ganbera-musika ekainaren 18an, osteguna.

KATEDRALA ZAHARBERRITZEKO PROZESUA HITZALDI ESPEZIALIZATU BATEN PROTAGONISTA DA BURGOSEN

Santa Marian urteetan zehar egindako lanek espezialisten eta ikusleen interesa pizten jarraitzen dute. Hori dela-eta, aukera sortzen den bakoitzean, gure taldeak hainbat forotan parte hartzen du horiek azaltzeko. Oraingo honetan, "Matematika eta katedralen arkitektura" VIII. Hitzaldi-zikloan parte hartu du, Burgosen.

Leandro Camarak "[Katedral baten zaharberritzea eta kontserbazioa. Gasteizko adibidea](#)" eskaini zuen, ibilbide historikoa katedralaren zortziehun urte baino gehiagoko bizitzan, Erdi Aroko jatorritik hasi eta birgaitzeko egindako azken esku-hartzeetara bitarte. Gainera, arkitektoak eta Katedral Fundazioaren bulego teknikoko zuzendariak Santa Mariak ondare bizi bezala duen balioa nabarmendu zuen.

